



Surfatloia

EGUNA: 2025/06/22

ORDUA: 9:00-12:00

Antolatzailea: Groseko Indarra Surf Taldea

GALDERAK ETA ERANTZUNAK (FAQ)

- 1. Zer da Surfatioia?** Arrauna eta korrika uztartzen dituen kirol proba herrikoia.
- 2. Zergatik Surfatioia?** Groseko Indarra Surf Taldeak 25 urte betetzen ditu aurten eta beste hainbeste bete nahi ditugu surf-a balore jakin batzuen ikuspuntutik bultzatzen; euskaltzaletasuna, parekidetasuna, talde-lana, parte-hartzea, inklusioa eta ekologismoa, besteak beste. Kirol proba honek kutsu herrikoi eta aldarrikatzailea izango du, gure elkartearen urteurrena ospatu eta gure egitasmoa lau haizetara zabaltzeko.
- 3. Zein egunetan ospatuko da?** Ekainaren 22an goizeko 9:00etatik eguerdiko 12:00tara. Ondoren sari banaketa burutuko dugu. Jateko eta edateko zer edo zer ere eskainiko dugu.
- 4. Zein izango da ibilbidea?** Bi Ibilbide egongo dira: ibilbide luzea (IL) eta ibilbide motza (IM). IL egiten dutenak 9:00tan hasiko dira, IM egingo dutenak, berriz, 10:30tan. IL egin nahi dutenak Groseko Indarraren parean itsasoratu eta portuan lehorreratuko dira. Portuan, zeharkaldia burutzeko erabili duten taula utzi eta, bertatik, korrika bueltatuko dira Paseo Berri eta Kursaalaren atzealdetik Groseko Indarreraino. IM egin nahi dutenak, aldiz, Groseko parean itsasoratu eta espigoian lehorreratuko dira. Espigoi aldean, zeharkaldia burutzeko erabili duten taula utzi eta, bertatik, korrika bueltatuko dira Kursaalaren atzetik Grosekoraino.
- 5. Zenbat denbora iraungo du probak?** 9:00tan emango zaio hasiera eta 12:00tan bukaera. Ibilbide luzea 3 ordutan itxiko da; ibilbide motza, berriz, 1,5 ordutan.

- 
6. **Zein ordutan bertaratu behar dira parte-hartzaileak kontrol gunera?** Ibilbide luzea egingo dutenak 8:00tan; ibilbide motza egingo dutenak, aldiz, 9:30tan.
 7. **Edonork parte har dezake proban?** Ibilbide luzean parte hartzeko gutxienez 16 urte eduki behar dituzu. Ibilbide motzean parte hartzeko ez dago adin mugarik.
 8. **Zenbat modalitate eta kategoria egongo dira?** Hiru modalitate eta bi kategoria egongo dira. Modalitateak: (1) SUP, (2) 8 oin baino handiagoko surf taulak eta (3) 8 oin baino txikiagoko taulak. Edozein kasutan, taulak ezin dute 14 oin baino gehiago neurtu. Kategoriak: (1) emakumeak eta (2) gizonak.
 9. **Nola eman dezaket izena?** Izen-ematea kirolprobak.com orrialdean burutuko da eta 10 € ordaindu beharko ditu parte-hartzaile bakoitzak. Groseko Indarraren webgunean esteka bat egongo da parte-hartzaileak izen-emate orrialdera zuzenean eramango dituen.
 10. **Non kontsultatu dezaket probaren araudia eta irizpideak zehazten dituen dokumentua?** Kirolprobak.com eta Groseko Indarraren webgunetan.